



ALEGIAKO AFORALEKUAREN BERRIKUNTZA

RENOVACIÓN DE LA ESTACIÓN DE AFOROS DE ALEGIA





ALEGIAKO AFORALEKUAREN BERRIKUNTZA

- 1. dokumentua: MEMORIA
- 2. dokumentua: PLANOAK
- 3. dokumentua: PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA
- 4. dokumentua: AURREKONTUA



1. DOKUMENTUA

MEMORIA



MEMORIA

AURKIBIDEA:

1. AURREKARIAK, PROIEKTUAREN OBJEKTUA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	1
2. OBREN DESKRIBAPENA.....	1
3. SARBIDEA.....	3
4. LANAK EGITEKO EPEA ETA BERMEAREN EPEA.....	3
5. PROIEKTUAREN AURKIBIDEA.....	3
6. AURREKONTUA.....	5



1. AURREKARIAK, PROIEKTUAREN OBJEKTUA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako ur emaria eta kalitatea neurtzeko sarea hobetzeko eta modernizatzeko Plan Gidariaren aurreproiektu bat egin da. Bertan, Gipuzkoako aforalekuen azterketa bat egin da, azpiegiturak hobetzeko beharra zehaztu ahal izateko.

Alegiako aforalekua 1994az geroztik dago martxan, eta gainezkabidea 1997an berritu zen. Etxolak hezetasunak ditu kanpoaldean. Gainera, eraikinaren inguruko urbanizazio guztia, harkaitzean zimendatuta ez dagoenez, asentatu egin da, eta, ondorioz, etxolako hegalaria eusten dioten pilareak estalkitik askatu dira, eta, beraz, teilatua ia hegal modura sostengatzen da.

Proiektu honen objektua da aforalekuko etxola eta urbanizazioa berritzeko beharrezkoak diren obrak zehaztea, bai ibaiaren eskuinaldean bai ezker aldean.

Kontuan izan behar da obraren zatirik handiena kokatzen dela ibaiaren ezker aldean dagoen etxolan eta haren urbanizazioan; hala ere, beharrezkoa izango da eskuinaldera pasatzea, tornuaren profilaren inguruko eremua berriz urbanizatzeko eta hormak egokitzeko. Etxolaren eremura GI-2131 errepidetik iristen da, eta eskuinaldeko ertzera, berriz, Hegoalde kaletik.

2. OBREN DESKRIBAPENA

Hauek dira egin beharreko obrak:

- Etxolaren barnealdea eta kanpoaldea berritzea.
- Ibaiaren ezker aldean urbanizazioa berritzea.
- Ibaiaren eskuinaldea egokitzea.

Eraikinaren inguruko urbanizazioaren zati bat asentatu egin da, ez dagoelako harkaitzean zimendatuta, eta, ondorioz, etxolako hegalaria eusten dioten pilareak estalkitik askatu dira. Pilareen azpian hondoratutako zatia mortero likidoz sendotuko da, lurra finkatzeko. Pilareen eta hegalararen arteko lotura-eremua pikatu eta egokituko da, eta behar diren faseetan konponketetarako mortero berezi bat aplikatuko da loturaren eraginkortasuna bermatzeko, betiere pitzadurak saneatu ondoren, horrela pilareak egiturarekin solidario bihurtuz. Gainera, etxolaren inguruan hondatutako zoladura guztia konponduko da.



Egungo teilazko estalkia kendu eta zeramikazko teila kurboak jarriko dira zementuzko morteroz egindako erregularizazio geruza baten gainean.

Etorkizuneko tornuko kableak ateratzeko, aforalekutik ibaiaren eskuinaldeko euskarriraino, beste ate bat egitea proposatu da, lehendik dagoenaren antzekoa, kableen pasabidean zulo bat izango duena, planoetan definituta. Leihoa berritu egingo da eta sareta bat izango du; halaber, pareko horman sareta bikoitz bat jarriko da, etxolaren barruan aireztapena errazteko.

Tapa biribil berri bat jarriko da, hobietako baterako sarbidean dagoen karratuaren ordez, etxolaren barruan, eta sarbide hori egokituko da.

Erremate gisa, zoladura irristagaitz bat jarriko da etxola barruan, eta saneatu eta margotu egingo da barrutik zein kanpotik.

Ibaien dagoen sestra-zunda birkokatuko da, kablea baranda berri baten barrutik pasata erregistroko kutxa berri batera iritsi arte. Kutxa hori baranda zati berrira soldatuko da, eta, ondoren, kablea baranda-hodi beretik jaitsiko da berrira, eta hormigoizko inpostatik eta galtzada-harrizko zoladuratik sartuko da etxolan. Horrez gain, erregistro txiki bat egingo da inpostan, zundaren kablera iritsi ahal izateko.

Ibaiaren alde horretan dauden barandak desugertu eta berrira margotuko dira, eta etxolaren inguruak presiozko urarekin garbituko dira.

Edateko uraren egungo sarea bitan banatuko da, iturrirantz eta etxolarantz. Kontagailu berri bat jarriko da lehendik dagoen kutxatilaen barruan, eta eroanbide berri bat egingo da etxolaraino.

Ponpara sartzeko eremuan dauden pateak kendu egingo dira, eta, horren ordez, pate berriak dituen hormigoizko ostiko bat instalatuko da. Gainera, ponpatik etxolarako ur-hodia berrituko da.

Ibaiaren eskuinaldean, pate berriak jarriko dira hormigoizko ostiko baten gainean, eta hormigoizko plataforma bat sortuko da, erreskateko davit besorako oinarri bat jartzeko.

Era berean, sareta bat jarriko da, hurbil dagoen bidea hormigoizko harlauza horrekin lotuko duena. Halaber, egungo profilararen ingurua hormigoiz egokituko da, eta plataforma bat sortuko da haren mantentze-lanak errazteko.



Inposta bat egingo da ibaiertz horretako ibilgu-hormaren gainean, eta baranda bat jarriko da, zeinak ate bat izango duen pateen eremuan. Hori guztia planoetan zehaztuta geratuko da.

Azkenik, ibaiaren ibilguko hormak garbitu eta lehengoratu dira.

Ibilguko hormetan obrak egin ahal izateko, aurreikusten da atagia bat egin beharko dela lurra mugitzeko makineriarekin.

3. SARBIDEA

Ibaiaren ezker aldean dagoen aforalekura GI-2131 errepidetik iritsiko da, eta eskuinaldeko ertzera, berriz, Hegoalde kaletik.

4. LANAK EGITEKO EPEA ETA BERMEAREN EPEA

Obra guztiak egiteko aurreikusitako epea LAU (4) HILABETEKOA izango da.

Berme epea URTEBETEKOA (1) izatea komenigarritzat jotzen da.

5. PROIEKTUAREN AURKIBIDEA

Proiektu honek dokumentu hauek ditu:

1. dokumentua: MEMORIA

1. Aurrekariak, proiektuaren objektua eta hartutako irtenbidearen deskribapena
 2. Obren deskribapena
 3. Sarbidea
 4. Lanak egiteko epea eta bermearen epea
 5. Proiektuaren aurkibidea
 6. Aurrekontua
1. ERANSKINA. Segurtasuna eta Osasuna
 2. ERANSKINA. Hondakinen kudeaketa
 3. ERANSKINA. Prezioen justifikazioa



4. ERANSKINA. Ingurumen Inpaktoaren azterketa

2. dokumentua: PLANOAK

1. Kokapen planoak.
2. Kokaleku planoak.
3. Sarbideen planoak.
4. Egungo egoeraren oinplanoak.
- 5.1. Aurkezpen planoak.
- 5.2. Jarduketan oinplanoak.
- 6.1. Etxola. Oinplanoak eta xehetasunak.
- 6.2. Etxola. Fatxadak.
7. Xehetasunak.

3. dokumentua: PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

4. dokumentua: AURREKONTUA

- 1.- Neurketak.
- 2.- Prezioen 1. taula.
- 3.- Prezioen 2. taula.
- 4.- Aurrekontua.



6. AURREKONTUA

Alegiako aforalekuaren berrikuntza proiektua kontrata bidez egiteko aurrekontua (BEZa barne) ehun eta hogeita hiru mila lau euro eta hogeita bat zentimokoa da (123.004,21 €).

Donostia, 2020ko apirila

Sin.: Yune García Ancín
Ingeniari Zibila

Sin: Felipe Álvarez Rodríguez
Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria